

Jose Mutiozabal Begiristain Txabillo

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1930-2020)*

Aurkibidea

Biografia



Txabilotarren tabernan jaioa, Gipuzkoa kalean. Ezkondua. Okin izandakoa, igeltseroa, arotza eta mandataria. Festak antolatzen jardun izan du. Bere anaia Bonifazio Mutiozabal da, hura ere proiektu honetan elkarriketatua.

Zintak

ZAR-022

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-04-20
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Biografia; 'Txabillo' izenaren jatorria

- **Erref:** ZAR-022/001
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Jose Mutiozabal, 1930ean jaioa Gipuzkoa kalean. Txabillo ezizena aitonarengandik datorkio. Txabillo tabernan jaio zen. Non bizi izan ziren.</p>

Transkripzioa

- Igual, e, hasteko igual esan, e, zure izenak, apelliduak eta noiz jaio zifan.
- A! Nik, zea, dazkat hiruroeita hamabost urte, el treinta.
- Hogeita hamarrian.
- Ta hogeita hamarreko... Sesenta o, ni hortan oso txarra naiz. Bano, hiruroeita hamabost urte dazkat nik.
- Eta zure izena ta apelliduak?
- Jose Mutiozabal Begiristain, bai.
- Ta, e, zu ezaguna zea batez ere jai giroko kontuekin.
- Bai.
- E, barkatu. Nun jaio zifan?
- Ni, Zarautzan.
- Zarautzan, ze kaletan, edo?
- Kalia, e, Kale Nagusiya zan... eon, eon, eon! Gipuzkoa Kalia uste det, porke... Oan esplikatuko dizuet. Farmaziya pasata San Pelaio aldea guazela, nola dao uan pelukeia?
- Bai, bai.
- " De caballeros".
- Bai, bai.
- Hori zan Txabilloneko taberna, sasoi baten.
- Aaa!
- Ta hor jaiua naizela uste det nik. Bai.
- Ta, Txabillo izena nondik dator, ba?
- Hori aitonanetikan.
- Hemen lehen etxe bakoitzak bere, bere izena zun.
- Bai, bai.
- Gehienak.
- Gu Mutiozabal, bano guri beti deitu izandu digu Txabillo. Aitonak eta nola

taberna euki zuen han, ta geo gure aita zanak eta hartu zuen taberna. Ta beti Txabilloneko ixkiña. Geo, Txabillok eta laga zunian, Kukulunekuak hartu zuen hori. Zuek asko ezautzen dezue hori. Juzgauan nola eoten da Inaxio?

- Bai.

- Iruretagoiena.

- Bai, bai, bai.

- Nere laguna. Hoiek euki zuen geo taberna hor. Ta ardu-almazena ta taberna ta euki zuen hoiek. Ta hoiek geo Kukuludeitzen ziyoen, bano beti horrei Txabilloko ixkiña. Hortikan Aia ta karrera ta, jendia ateatzen zan asko. Hor apustuak eta iten zituenian ta, gure aita zana izugarriya izan behar zun, bai, korrika ta. Danak Txabillongo ixkiñatik atea ta, fama hori. Guri beti, guri Txabillo, Mutiozabal gea, bano. Nik nola dazkaten bost seme-alabak, gure itxian bizitzen zianian beti lagunak telefonua: "Txabillo?", "Bano ze Txabillo?", ta. Ta esan giñun, ba, hamendik aurrea izenekin deitu, porke... "Joe, aita bezela", ta. Nei gehienek Txabillo deitzen die, guri Txabillo.

- Ta ordun, taberna giroan jaiotakua zea zu?

- Nik, nik, nik ez nizuke seguru-seguru esango... Bano, nik uste det tabernan jaiua naizela. Geo, etorri giñan hortikan, Bar Itxaso nola?

- Bai, bai. Bai.

- Bar Itxasoko parian. Cazalis zapateia nola daka?

- Bai.

- Itxe hori uan parte bat da zeana, Alleme basarrikuana.

- A, bai. Hoiek dia Aginaga.

- Agiñaga, bai.

- Bai, beak apellidua andriak ez dakit nola dun, bano gizona Aginaga. Ta hoiien itxian eon giñan gu. Uan, ni neetzako, tabernatik etorri giñan, ta nik uste det tabernan jaioko nintzala. Ez nizuke esango seguru.

2. Janariaren truke egindako lanak

- **Erref:** ZAR-022/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mutikotan lan ugari egiten zuen janariaren truke. Festetan bokadiloak saltzen zituzten tabernetan afari-pasara egiteko.

3. 10 urterekin hasi zen buru-haundiekin lanean

- **Erref:** ZAR-022/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Nola hasi zen jaien inguruko lanetan azaltzen du. Etxean dirurik ez eta lan txikiengatik ordaintzen zioten. Hamar urterekin hasi zen buru-haundi lanak egiten eta bizpahiru pezeta ematen zizkieten.</p>

Transkripzioa

- Ta nola, nundik, e, e, zaletu ziñan zu pixkat,e, festa kontuan, ta? Kuadrilla, kuadrillan barrun edo bestela?

- Aitu! Gu izan gea, pobriak izan gea ta itxian ez guk pagik eta ez giñun izaten mutikoskorretan. Ta kabezuro, buruhandiyakin ibiltzen baldin bagiñan, zu, ezautu, ezautu, urte asko dia, zenbat urte? Ba, zortzi bat urte o izango dia. Pepe Kale ezautu al zenun?

- Ez, ez.

- Pakito [...] deitzen ziyoen. Oan esplikatuko dizut ta akaso. Urdaiazpikuan denda nola dao hamen, taberna? Jai Txiki.

- Bai, Jai Txiki.

- Hor orduan uan zea dao, botika bat.

- Bai.

- Ta botikan onduan zeon, e, "tienda amarilla" deitzen ziyoen. Hori zan [...] ezautu huan, Juaristi, Gervasio eon zan ba alkate?

- Bai, badakit zein dan.

- Hori eon zan alkate han. Ta horren osaba bat. Ta horrek paatzen zun. Ta, aitu! Kabezuruan zeakin ta atea ta geo, egurra ematen baldin bagiñun, bi hiru pezta ematen zigun. Ta gu, batetik eta bestetik, beti, beti [...] izan gea. Ni hamar urtekin hasi nitzan zeatik, buruhandiyakin, zeatikan, zirkulutik, esan dizut...

- Bai, bai, bai.

- ...Frailetakoa aurre hortan. Hor zeon, uan 'e saloia earra han eongo da. Entenditzen al dezu? Batzokiyan ta nola dao...

- Bai.

- ...zea iteko? Ba, ni esplikatzen txarra naiz, bano...

- Bai, bai, bai, bai.

- Ta halako zea uan 'e osoik hor eongo da. Gero hori Miramarkuak erosi zuen, ta Hotel Miramar. Hor hiru anai o bizitzen dia hor. Geo hiruan batzuk dentista ta zerbait jarrita dakaye hor. Hortikan. Esan dizut nik, mutikoskorretan 'e, ez nitzan gelditu 're iten. Batian ta bestian ateatzen giñan gu.

4. Lehenagoko festa-giroa eta jaietako ekintzak

- **Erref:** ZAR-022/011
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Bera mutikoa zela bizikleta lasterketak egiten ziren kale Nagusian. Ama Birjina egunean Munuan lapiko-apurtzeak egiten ziren. Lehenagoko San Pelaioak nolakoak ziren. Soinujoleak hostoz adornatutako karroan jotzen zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta orduan, zirkulotik hasi ziñan, piska bat hango, zeretikan...
- Bai, handikan, buruhaundiyakin ta.
- Ordun, e, hamar urtekin esan dezu, hasi ziñala.
- Bai, bai.
- Ta ordun ze festa izaten zan ordun, zuk hamar urte zenula?
- Orduan izaten zian bizikleta karrerak eta. Bizikletak eta karrerak iten zituen, buruhaundiyak nola uan? Haiek buruan jarri ta ni akordatzen naiz, bat bizi da, ta bea justu-justu akordatzen da. [...] akordatzen? [...] Urbietan. Hori da Carlos ta, frailliak eta, hoi en osaba da hori. Ama ama zanan anaia. Ta hoiak eta, ta, hil zian bestiak, Pantolingokua ta, ni akordatzen naiz [...] ta. Geo, zean, e, Ama Birjiña eguna etortzen zan ta Ama Birjiña egunian 'e Munuan jartzen zuen, postiak zian ba, arbolezko postiak zian hor, ta batetik bestea sokakin jarri, lurrezko ontziyak, lurrezko, e! Lurrezko ontziyak jarri, han konejuak sartzen zituen, ta oillaskuak. Ta, zuri begiya itxi ta makillakin, ta hausten dunak beatzako. Ta geo premiyuan ematen zuen hola, gehiena hausten zituna ta. Beno [...]! Oso... festa politak iten zian lehen, bai. Uan, uan dana, San Pelaiotan 'e... Lehen goizian etortzen zian zazpirak eta laurdena Ramon Inazion osaba ta... Barkatu!
- Bai, trankil, trankil.
- Lasai, lasai.
- Ez dago arazorik.
- Zea... akaso esango zizun, bano, hoiak Gaztatxurinekuak zian hoi en ama ta, San Pelaion, gasolinera bano lehen, ze, kanal aldea guazela, basarri zahar bat.
- Bai, bai.
- Ta han geo inbitauak eta etortzen zian, San Pelaiotan oso festa ze, iten zan, ba. Ta hoiak etortzen zian barriyoko, han barriyoko... Oan 'e ekartzen due, soñuzalia ekartzen zuen, ta bertsolaia eta. Ta iten zuen, ze, [...] Eibarren ze eon balin bazea... Lehen San Juanetan bakizu, han 'e ohitura haundiya, ta hemen 'e Serrasenian ta arbolak hostruak berdiak, haiekin jarri ze karruai, soñua jarri han, eta bi hiru etortzen zian panelo gorriyak. Zuk akaso ezautu 're ingo zenun, Etxaniz aguazilla ezautu al zenun? Ba, hura, [...] o, ez dakit nola izena... hura 're bai. Lehen, lehen fiestak lehen izaten zian, San Pelaiuak lehen izaten zian. Geo, San Pelaio biarrena 're berriz, karrera, karrera izaten zan. [...] o Lasartekuak eta, izeneko, karrera hemen fama haundiya zun.

5. Santa Ageda eskeko giroa

- **Erref:** ZAR-022/012
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:20:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Santa Ageda egunean zazpiak aldean atera eta tabernaz taberna ibiltzen ziren. Nortzuk ibiltzen ziren kuadrillan, Baserri tartean zela. Elgeta soinujolea ere ibiltzen zen. Koplak abesten ziren makilekin konpasa eramanez.</p>

Transkripzioa

- Igual errepaso bat ingo deu, urte, urte, urte hasieratikan, kalendaiua

hartu eta ze festa eoten zan Zarautzen, e, zure gazte, gazte, hamar, hamar, mutiko garaian.

- Ba, aurrena...

- Santa Agedak iten al zian?

- E?

- Santa Agedak.

- Bai, bai, onak gaiñea, e! Basarri-ta.

- Ta, nola, nola izaten zan, aber. Santa Agedatan ze iten zan zure, zure mutiko garaian?

- Gure mutiko garaian iten zan, ba, arratsaldian ateatzen zian, ba, zazpi t'erdik zortzik aldian, ta hamengo taberna danak pasa. Lehen tabernan uango aldian dana beteta eoten zan, ba. Ta orduan, ba, Basarri bertsolaia, Txokoko, uan Bar Txoko itxiya do, Alejandro, ta holako kuadrillak. Badabe batzuk, beno, batzuk hilda 're badabe, oan. Zuk gaiñez ezautu, bestia ezautuko dezu Eugenio Elola, eletrizista esan deu, ba? Hamen, Elektrizista Santa Maiña, hoiek eta. Hoiek santa eskian... Hemen santa eskiak oso zea zun, fama haundiya. Geo zuk ezautu ez, Elgetako bat zan, geo, azkenian nahiko zea hil zan hura, bueno, Elgetakuak, Miako jendiakin, Miako neskakin ta. Hamen zea...

- Elgeta trikitilaia?

- Elgeta trikitilariya. Harek zakin purua erretzen! Honeaiño erretzen zun purua, [...]: izugarriya! Ezautzen, ezautzen zendun, e? Aitu! Soñuzale ona, bai! Ta zean 'e santa esken nik hura ezautu nun mutil koskortan.

- Ta Miako neskakin ibiltzen zan?

- Hura Miakua, [...] zeakin, Ziotzako neskakin ta. Aitu! Kuadrilla, ekipua ibiltzen zan ba, ekipua. Gizasemia gehio ibiltzen zan bano, hura, hango Miako jendiakin ibiltzen zan hura. Ni, ni akordatzen naiz, gu mutilkoskorra, ta. Bai, esan [...] bai, lehen santa eskia oso zea zan, oso...

- Ta, koplak iten zan, koplak? Bertso ta koplak.

- Bai, geo etxeandriai, [...] Txokoko andriai o gizonai, beai botatzen zion ta. Batek bertsua ta geo, makillakin, oso earra zeatzen zan hori. Uain 'e iten due, baino lehen, oso polita izaten zan.

- Ta kantu bereziya bazeon, Zarauzko kantu bereziikan bazeon, edo?

- A, hori ez nizuke esango. Ez, horta ez nizun...

6. Dirua eskatzen zen etxeetan jaiak antolatzekeo

- **Erref:** ZAR-022/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>San Juanetan sua egiten zen. Baserrietan ohitura handia zegoen lehenago eta kalean ere egin izan da. Dirua eskatzen zuten etxe eta tabernetan. Txurroaren inguruko kontuak.</p>

7. Jendeari maletak eramaten egindako lana

- **Erref:** ZAR-022/016
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Jendea trenez etortzen zen lehenago maletekin. Mutikoa zenean treneko atean egoten ziren maletak eramaten laguntzeko zain. Soldaduei ere laguntzen zieten patata-zakuak eramaten. Ez zuen goserik pasatu.

8. San Pelaioetako giroa; musika eta dantza.

- **Erref:** ZAR-022/017
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

San Pelaioak. Kanpotik etortzen ziren neskei "bugatis" deitzen zitzairen. Helduan dantza egiten zuten. Jaien hasieran buru-haundi eta erraldoiak egoten ziren eta gauean bandak jotzen zuen. Txistulariak eta Lizarrako dultzaineroak ere etortzen ziren. Hauen inguruko gertakizuna.

Transkripzioa

- Bueno, eta, e, San, San Juanak, e, ordun, San, San, e, San...

- [...] hortan iten zan.

- ... iten zan.

- Geo hortik jun zian horrea.

- Bai, bai. Eta gero, San Juanak para ta gero San Pelaiuak. Nola izaten zian San Pelaiuak zure mutiko garaian?

- Jo! Gure mutilla garaian San Pelaiuak [...] iten zian earrak! Lehen, gure zean, gazte denboan, uan iten dun bezela, afaita ta juten da jendia, orduan ez zan holako zeakin.

- Jaietan ze eoten zan, ze programa eoten zan, eo ze iten zan, eo? Ala ezer ez da festa?

- Bai, bai, bai. Jaitan musika izaten zan hamen. Ta uda partian iten zan, ez dakit, astin bitan jartzen zuen, osteunian ta zapatun uste det jartzen zuela. Neskamiak kanpotik etortzen zianak, hoiei deitzen zitzaioen "bugatis", bugatidak deitzen ziyoen. Neskamian tokiyan bugatidak orduan. Ta, dantzan, ordun iten zan dantzan, heldua, e! Heldua ta, da-da, dantzan in, ta, pu! Ordu, ordu, orduan iten zan. Ta...

- Baiña San Pelaiuak nola hasten zian? Bisperan nola hasten zian? Ze, ze eoten zan hasteko, festa hasteko?

- [...] zea, fiesta hasteko? Aurrenengo gauza, kabezuruak eta, ta jigantiak, hoiek izaten dia. Uan bezela, uan danborradak eta, holakoik ez zeon lehen.

- Ta, e...

- Kabezuruak eta [...] hasi ta geo gabian, gabian zea jartzen zuen, musika jartzen zuen. Bandak jotzen zun, o bestela kanpotik ekartzen zuen. Bano gutxi kanpotik, herri, herriko bandak lan asko iten zun lehen.

- Ta zu, orduan ya kabezudokin ta ibiltzen ziñan?
- Ni kabezuruakin, bai, bai, bai. Nik lehen, lehen [...] zeak, agozillak eta ezautzen det, bai, ba, hamar urtetikan hasi nitzan, ta. Geo honea zian, zu ezautu bai, Eibarren eon balin bazea zu, [...], duzineruak, hiru anai, Estellakuak etortzen zian Eibarrea, illoba batekin, illobak tanborra jotzen zun. Ta hiru, hiru anaiak jotzen zuen duzina. Eta etortzen zian handikan Zarautza. Ta zuk ezautuko zenun Zarautzan ayuntamientuan urte askuan eon zan Juanito Zuzuarregi? Horrek paatzen zun. Ta gertatu zan handik etorri iten zian ta, egunian haiek etortzen zian. Ibiltzen giñan txistuakin bezperan, bano, egunian, bi egunetan ibiltzen giñan, uan bezela soiñuakin ta ez, zeakin, duzinakin, zea, duzineruakin. Guk gaiteros deitzen diyou hoiei, Estellakuak. Ta hoiek. Ta hoiek etortzen zian Eibartik Zarautza. Ta geo Zarautzitan juten zian Zumaira, San Pedruak. Ta hola ibiltzen zian. Bano urte bat gertatu zan, jai hau, ta han ze in diyoe? Koño! Gelditu zeazte zean, ta gelditu han, ta guri ezer 'e abixatu ez. Ta gu hamen zai. Nik mutillak eta danak jarrita, buruhaundik eta, nik eamaten nun, ba, martxa. Danak zai, zai, zai, zai, zai. Zuzuarregiri esan niyon, Juanitoi, hau ta hau, "geo ba al dakizu ze pasatzen dan? Ayuntamientuan inorrek ez du iten festetan lanikan, ta..." Lehen bezela, uan bezela ez zeon lehen inspekziyuak eta, bazian bano, jaitan zanen diferente. Nola hala lokalizatu zuen, si... hau ta hori esan ziyoela ta, bakizu, haiekin ondo gelditzeatik, bano hori ez zala iten. Ta, azkenian txistulaiaikin ta abar, ta nola hala ibili giñan ta. Ikusten dezu gauza nola izaten dan, geo laga in ziyoen haiei. Haiek harrezkeo ez zian etorri.

9. San Pelaioetako giroa

- **Erref:** ZAR-022/018
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Dultzaineroek musika-kiosko ondoko tabernan bazkaldu eta lo egiten zuten. Gaueko ordu bat eta erdietan bukatzen zen festa. Serenoa ibiltzen zen. San Pelaio bigarren goan lasterketa egoten zen eta jendeak hamaiketako egiten zuen.

10. San Pelaioetako giroa; garaien arteko konparaketa

- **Erref:** ZAR-022/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Lehengo San Pelaioen eta oraingoan arteko aldea. Oilasko-biltzea egiten zen goizaldera. Herri-kirol erakustaldiak ere egiten ziren. Familia guztiek eramaten zituzten errokilak. Dantza asko egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Jaietan, herri-kirolak eta izaten al zian? Herri-kirolak eta...
- Bai, bai, bai...
- Ze herri-kirol iten zan?
- Oain bezela, sokatirak eta... Sokatirakin ez naiz hola akordatzen, bano aizkora apustua ta... Geo hoiek zian ohitura handiya, zea, e, oillasko biltzen-ta ibiltzen zian goizaldera. Ta geo hoiek... bertsolaiyak-eta, bertsolaiyak-eta orduan nekez... bano oain jarri ditue /jarritue/ bertsolaiyak-eta, oain ekartzen ditue.
- Herri-kirol apustuak-eta iten zian lehen?
- Bai.
- Ze, San Pelaiotan?
- A, apustuak eta, ez apustuak ez...
- Exibiziyuak.
- Exibiziyua, hori da, esibiziyuak orokorren, nik hala akordatzen naiz...
- Ta nun ite zan hori?
- Hori? Iñurritzan.
- Iñurritzan.
- Iñurritzan ite zan hori.
- Ta herriko jendia joten zan? Herriko...?
- Herriko jendia hara joten zan. Esan dezu ta... in zan San Pelaiotan, bi egunetan, famili bat [egongo] erroskillak ekartzen zituna. Ta ekartzen ez zunak... han jende asko ta, ta... Serrasetetik hartu, Serrasetenian bere sokakin txintxilika. Geo oain, azken sasoi hontan, ikusi izan ditut nik, makil bat sartu hola, ta makillakin zeak eta, [...]... Lehenon dana sokakin zan. [Lista] txiki bat eukitzen zun ta... Esaten dizut, ba, lehenon San Pelaiuak... San Pelaiuak, lehenon iten zian San Pelaiuak. Ta dantzaz e ordun iten zun jendiak gehio. Uan dantza gutxi iten du jendiak.
- Ta jendia nola dibertitzen zan? Dantza inda ta...
- Dantza in ta... aitu, bata ta bestiai txikitua ta... Oain bezain... Euskal festak-eta etorri ta, oan bezela? kioskuan onduan botillak-eta lagata. Holako kontuik ez zan lehenon!

11. Ama Birjinaren eguneko festak

- **Erref:** ZAR-022/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Ama Birjinetan ere jaiak ospatzen ziren. Gran Hotel parean, kostan, egiten ziren lehenago su artifizialak. Munuan lapikoak apurtzen aritzen ziren eta bertan ateratakoarekin afaria egiten zuten.</p>

12. Kanpotarrak Euskal Jaia pasa arte ez ziren joaten.

- **Erref:** ZAR-022/028
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:56:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Kanpotarrak zain egoten ziren Euskal Festak pasatzeko beraien herrietara itzultzeko. Lehen txalet ugari zegoen.

13. Buruhaundien inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-022/032
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Euskal Jaietan jendea bokadiloekin egunpasa joaten zen San Pelaiora. Ama Birjinaren jaietan bizikleta-lasterketak egiten ziren buru-haundiekin. Buru-haundiak egurrezkoak izaten ziren eta humedadearekin hondatu egiten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta garai hartan, garai hartan esan dezu, e, e, euskal jaietan ta animaziyo haundiya...

- Bai, haundiya, haundiya, beti izan du honek.

- Herri, herri kirolak eongo zan ordun, baita?

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- San Pelaion baita?

- Bai, San Pelaion 'e bai.

- San Pelaion.

- Beno, San Pelaion izaten zan, zea, hango, fama, fama haundiya zan, e, bokailluakin ta junta, ta han, tabernak eta zea, han, ta, han, ta. Bestela kirolak eta, aizkol-apostuk eta [orduik] ez zan izaten. Iten zan aizkol-apustua ta hoiek San Pelaio eunian.

- A, San Pelaio egunian.

- Entenditzen?

- Bai.

- Ta soka tirakin ez naiz... Geo uste det hasi ziala sokatirakin ta.

- Baiña lehen aipatu dezu bizikleta-karrera izaten zala...

- Bai, bizikleta karrera, bai.

- Zea, buruhaundi...

- Buruhandiyakin 'e bai.

- Eta hori noiz izaten zan?

- Hori Ama Birjiñetan.

- Ama Birjiñetan.

- Ama Birjiñetan.

- Ta ze karrera izaten zan? Nundik noakoa izaten zan?

- Zirkulutikan Kale Nagusira, zeatikan, Parrokitikan buelta. Parrokitikan buelta iten zan, ta geo frailleta iyo berriz 'e, ta meta frailletako horta izaten zan ta. Oan, beno, hori asko izanda ezta akordatu 're ez dia ingo! Hor ibiltzen dana, Urbietan esan dizutena, Meltxorren zea, ez da akordatzen. Ta ni akordatzen naiz earki. Bai, bai. Lehen zian gaiña jigantiak

egurrezkuak, ta geo, izorratu in zian. Ta geo hortikan plaza berdura. Uan komunak eta nola dabe? Hor. Ta hor eukitzen zuen bonberuak 'e, leheno bakizu, hiru o lau bonbero, ta mangak, eta beti humeraria. Ta jigantiak [...], jigantiak esaten dizut bat, zortzi bat urte pasatzen baldin bazuen humerariakin ta izorratu iten zian.

- Ta, ze premiyo ematen zuen ordun, hola, bizikleta karrera irabazi ezkeo?

- A! Hua! Bi duro o hiru duro o. Ta aitu, ta, orduan diru haundiya zan, ta jendia ta, esaten dizut, ba, zea, Ama Birjiña eunian 'e, zean 'e jarri lapikuakin ta, begiya itxi, ta oso polita izaten zan. Ta jende asko eoten zan, e! Ta zuk makil bat hartzen zenun, ta hausi in behar izaten zenun. Ta askoek hausi ezin, ta hura izaten zan polita ikusteko, jendiak parre iteko ta. Lo que pasa que, zuk esan, seituan hausten baldin bazuen, bano, han hausi ezinikan ta, zea ta, oso polita izaten zan hori, bai.

14. Kanpotarrak trenez etortzen ziren

- **Erref:** ZAR-022/033
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:04:09. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Reketeek uztailaren 18a ospatzen zuten. Bezperan buruhaundi eta erraldoiak egoten ziren. Kanpotarrak Euskal Jaia pasatzeko zain egoten ziren Zarauztik joateko. Jendea trenez etortzen zen lehenago. La Bergaresa.

15. Txistulariak; euren jantziak

- **Erref:** ZAR-022/037
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:09:38. **Bukatu:** 01:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Txistulariak nola jantzita ibiltzen ziren. Asko ibiltzen ziren garai batean txistua jotzen. Erregetan zaldiekin ateratzen ziren.

16. Kanpoko koruak etortzen ziren abestera

- **Erref:** ZAR-022/038
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:10:49. **Bukatu:** 01:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Koruak ere etortzen ziren inguruko herrietatik, kanpotarrei asko gustatzen zitzairen eta. Bukatutakoan afaria ematen ziren berak abeslariari.

17. Trinitade kaleko jaiak

- **Erref:** ZAR-022/042
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:19:38. **Bukatu:** 01:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Trinitade kaleko jaiak. Asteburuan jartzen zuten festa eta musika egoten zen. Gure Kabiak antolatzen zuen festa.</p>

18. Errekadista lanean ibili zeneko kontuak

- **Erref:** ZAR-022/046
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:24:20. **Bukatu:** 01:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ez da egongo bera ibili ez den etxerik. Lehengo igogailuak non jarri ziren.

19. 8 urterekin eskabetxerian lan egin zuen.

- **Erref:** ZAR-022/047
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:25:00. **Bukatu:** 01:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Getaria eta Zarautzen arteko ez-ikusia. Anaia eta biak eskabetxerian aritu ziren lanean 8 urterekin, antxoei burua kentzen. Nola lan egiten zuten.

20. Orioko San Pedroak; boxeolariak.

- **Erref:** ZAR-022/050
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:30:35. **Bukatu:** 01:32:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeoa

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Juaristi anaiak boxeoan aritzen ziren. Orioko San Pedroak. "Toro" deitzen zioten boxeolari bat ikustera jende asko joaten zen. Zarauzko heladeroak Oriora joaten zen saltzera eta arrakasta izaten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com